

## DIRU SARRERAK:

- Gure lehen diru-iturria iragarkiak izango lirateke. Dirua irabazteko, Admob izeneko google-tresna bat erabiliko genuke. Tresna honek iragarkiak jartzen ditu aplikazioetan, dirua irabaz dezazun.
- Horrez gain, gure aplikazioak premium bertsio bat izango du, eta kopuru txiki bat ordaintzen duten bezeroek soilik eskuratu ahal izango dute. Gure aplikazioa doakoa denez, Premium bertsio hori gehituko diogu, bertsio normalak izango ez dituen edukiakin, adibidez profesionalekin egindako elkarrizketak, iragarkiak kentzea, bideokonferentzietako batzuk (adibidez, zenbait bideokonferentziak, karrera batzuetaz profesionalekin egiten ditugun bideokonferentziak).
- Erabaki dugu gure aplikazioak txanpon sistema batekin funtzionatzea, hau da, kideak txanponak pilatzen joango dira parte hartzen duten bideokonferentzia bakoitzeko (moneta 1). Horrela, premium edukietara sartzeko txanpon kopuru bat ordaindu beharko dute (500, adibidez), hau eginez pertsonak Premium atala izango dute, hilabatero 500 txanpon ordainduz. Txanpon gehiago lortzeko, bi aukera dituzte: 30 segundo inguruko bideoak ikus ditzakete, iragarki bakoitzeko 10 txanpon emango dizkizutenak (konferentzia bakoitzeko iragarki 2 ikusi beharko dituzte), edo "denda" izeneko atal batean eros ditzakete. Denda honetan, txanponak loteetan salduko dira, adibidez, 45 txanponeko sorta batek euro 1 balio lezake
- Diru sarrerak banatzeko momentuan, oraindik ez dakigu zenbat irabaziko dugun bakoitzak. Badakigu konferentzia bakoitzeko iragarkien dirua izango dugula, baina diru horrekin ere etortzen diren pertsonari ordaindu behar diegu. Horrexegatik ez dakigu zenbat irabaziko dugun.